

MLC KLUSTERRARRI ZUZENEO DIRULAGUNTZA EMATEKO HITZARMENA, BIZKAIKO BIDE AZPIEGITUREN 2024-2027KO BERRIKUNTZA ETA JASANGARRITASUN PLANEO LANTALDE BAT ABIAN JARTZEKO ETA DINAMIZATZEKO

CONVENIO POR EL QUE SE CONCEDE UNA SUBVENCIÓN DIRECTA A FAVOR DEL CLÚSTER MLC PARA LA PUESTA EN MARCHA Y DINAMIZACIÓN DE UN GRUPO DE TRABAJO DEL PLAN DE INNOVACIÓN Y SOSTENIBILIDAD DE LAS INFRAESTRUCTURAS VIARIAS DE BIZKAIA 2024-2027

PARTE-HARTZAILEAK

REUNIDOS

ALDE BATETIK, **CARLOS ALZAGA SAGASTASOLOA** jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko foru-diputatu, foru-diputatuen izendapena xedatzen duen Ahaldun Nagusiaren martxoaren 7ko 33/2024 Foru Dekretuaren bidez egin zen izendapena dela bide.

ETA BESTETIK, **EDUARDO LASA RAMIREZ** jauna, 34103837N NANaren zenbakiarekin, presidentea den heinean, Clúster de Movilidad y Logística de Euskadi elkartearen izenean eta horri ordezkatzuz, (aurrerantzean,), G01387414 IFKarekin eta helbidea Donostiako (20018) Tolosa hiribideko 75. zenbakian duena. Elkarteko Batzar Nagusiak 2023ko ekainaren 2an egindako bilkuran egindako izendapenaren arabera jarduten du, eta Eusko Jaurilaritzako Elkarleen Erregistroan inskribatuta dago.

Aldeek elkarri aitortzen diote hitzarmen hau gauzatzeko behar den gaitasuna eta eskumena, eta horren bertutez

AZALTZEN DUTE

LEHENA.- Bizkaiko Foru Aldundiak 2024an onetsi du Bizkaiko Bide Azpiegituren 2024-2027ko Berrikuntza eta Jasangarritasun Plana, zeinean jasotzen baitira Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak esparru horretan garatuko dituen estrategia, erronkak, helburuak eta jarduketak. Planak hiru helburu estrategiko nagusi ezartzen ditu: erabiltzaileari bideratutako kudeaketa, jasangarritasuna eta berrikuntza teknologikoa. Helburu estrategikoak lortzeko, ezinbestekoa da enpresa pribatuek eta entitate zientifiko-teknologikoei osatutako hiru lantalde eratzea, lidergo eta dinamizazio egokia izango dutenak, aipatutako helburuak lantzeko.

BIGARRENA.- MLC klusterra irabazi-asmorik gabeko erakundea da, iraunkortasun nahiz ekonomia zirkularraren eremuan aditua. Esperientzia zabala du I+G+Bko proiektuak kudeatzeko eta enpresa pribatuek eratutako lantaldeak dinamizatu eta koordinatzeko orduan.

DE UNA PARTE, D. **CARLOS ALZAGA SAGASTASOLOA**, Diputado Foral del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia, en virtud de su nombramiento realizado mediante Decreto Foral 33/2024, de 7 de marzo, de la Diputada General por el que se dispone el nombramiento de diputadas y diputados forales.

Y DE LA OTRA, D. **EDUARDO LASA RAMIREZ** con DNI 34103837N, en calidad de presidente, en nombre y representación de la Asociación Clúster de Movilidad y Logística de Euskadi, en adelante MLC, con CIF nº G01387414 y domicilio en Avenida Tolosa nº75, CP 20018 Donostia – San Sebastián Gipuzkoa, que actúa en virtud de nombramiento realizado en la Asamblea General de la Asociación Celebrada el 2 de Junio de 2023 e inscrito en el Registro de Asociaciones del Gobierno Vasco.

Las partes se reconocen la capacidad jurídica necesaria para suscribir el presente convenio y en su virtud

EXPONEN

PRIMERO.- La Diputación Foral de Bizkaia ha aprobado en 2024 el Plan de Innovación y Sostenibilidad de las Infraestructuras Viarias de Bizkaia 2024 - 2027, que recoge la estrategia, los retos, los objetivos y las actuaciones que desarrollará en este ámbito el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial. El Plan establece tres grandes objetivos estratégicos: la gestión enfocada a la persona usuaria, la sostenibilidad y la innovación tecnológica. Para alcanzar los objetivos estratégicos se hace indispensable constituir tres grupos de trabajo formados por empresas privadas y entidades científico-tecnológicas, con un liderazgo y dinamización adecuados, para trabajar los objetivos mencionados.

SEGUNDO.- El clúster MLC es una entidad sin ánimo de lucro experta en el ámbito de la Sostenibilidad y la Economía Circular; y con una amplísima experiencia en la gestión de proyectos de I+D+i colaborativos, así como en la dinamización y coordinación de grupos de trabajo constituidos por empresas privadas.



KLAUSULAK

Lehena.- Hitzarmenaren xedea eta subjektu bakoitzak egin beharreko jarduketak.

Hitzarmen honen helburua da behar diren baldintzak eta konpromisoak ezartzea MLC klusterrari zuzeneko dirulaguntza bat emateko, Bizkaiko Bide Azpiegituren 2024-2027ko Berrikuntza eta Jasangarritasun Planeko hiru lantaldeetako bat gidatu eta dinamiza dezan.

Dirulaguntza erakunde onuradunaren jarduketak finantzatzera bideratuko da, besteak beste:

- Lantaldearen buru izan eta hori dinamizatzea.
- Joera teknologikoak aztertzea.
- Eskualdean eta nazioartean erronkak eta aukerak identifikatzea.
- 2024-2027ko ibilbide-orri bat egitea lantaldearen-tzat.
- Urteko ekintza-plana egitea.
- I+G+Bko proiektuak identifikatzea eta taldeko enpresa nahiz erakundeen artean elkarlana sustatzea proiektuak garatzeko.
- Bide Azpiegituren 2024-2027ko Berrikuntza eta Jasangarritasun Plana hobetzeko proposamenak egitea eta Planaren helburuak lortzen laguntzea.
- Aldizka BFARI kontu ematea eta, horretarako, aurrerapenei buruzko bilerak, txostenak eta urteko memoriak egitea.
- Lantaldea erreferentziazko foroetan kokatzea eta horietan parte hartzea.
- Jardunaldi teknikoak antolatzea 2024an eta 2026an, eta klusterren arteko kongresu tematikoak 2025ean eta 2027an (bi urtean behin, tartekatuta).
- Urtean gutxienez berrikuntza-proiektu bat egiteko lanak koordinatzea. Proiektu hori bi enpresak edo gehiagok osatuko dute, eta Europako deialdietan aurkeztuko da.

MLC klusterraren helburuak eta xedek bat datoz Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Sailarenekin, enpresen artean I+G+B kolaborazio-proiektuak sortzea sustatzeari begira. Hori dela eta, MLC klusterrari zuzeneko dirulaguntza bat emango zaio, Bizkaiko Bide Azpiegituren 2024-2027ko Berrikuntza eta Jasangarritasun Planeko hiru lantaldeetako bat lideratu eta dinamiza dezan 2024, 2025, 2026 eta 2027. urteetan.

Azaldutako guztiak Bizkaiaren onurarako programaren interes publikoa, soziala eta ekonomikoa egiaztatzen du,

CLÁUSULAS

Primera.- Objeto del Convenio y actuaciones a realizar por cada sujeto.

El presente convenio tiene como finalidad establecer las condiciones y compromisos asociados a la concesión de una subvención directa al clúster MLC para liderar y dinamizar uno de los tres grupos de trabajo del Plan de Innovación y Sostenibilidad de las Infraestructuras Viarias de Bizkaia 2024-2027.

La subvención se destinará a financiar las actuaciones de la entidad beneficiaria, que son, entre otras:

- Liderar y dinamizar el grupo de trabajo.
- Analizar tendencias tecnológicas.
- Identificar retos y oportunidades, a nivel regional e internacional.
- Elaborar una hoja de ruta 2024-2027 para el grupo de trabajo.
- Elaborar un plan de acción anual.
- Identificar proyectos de I+D+i y promover la cooperación entre las empresas y entidades del grupo para desarrollar proyectos.
- Hacer propuestas de mejora del Plan de Innovación y Sostenibilidad de las Infraestructuras Viarias 2024-2027; y ayudar a alcanzar los objetivos de dicho Plan.
- Rendir cuentas a DFB periódicamente, mediante reuniones, informes y memorias anuales sobre los avances realizados.
- Posicionar al grupo de trabajo en foros de referencia y participar en los mismos.
- Organizar jornadas técnicas en 2024 y 2026 y congresos interclúster temáticos en 2025 y 2027 (carácter bianual intercalados).
- Coordinar la elaboración de al menos un proyecto de innovación al año, conformado por 2 o más empresas y su presentación a convocatorias europeas.

Dada la coincidencia de objetivos y fines del clúster MLC con los del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia en promover la generación de proyectos de I+D+i colaborativos entre empresas, procede otorgar una subvención directa al clúster MLC para el liderazgo y dinamización de uno de los tres grupos de trabajo del Plan de Innovación y Sostenibilidad de las Infraestructuras Viarias de Bizkaia 2024-2027 durante los años 2024, 2025, 2026 y 2027.

Todo lo expuesto acredita el interés público, social y económico de este programa que redundará en beneficio



eta proposatzen diren helburuak lortzeko deialdi publikorik ez erabiltzea justifikatzen du.

Bigarrena.- Erakunde onuraduna.

MLC klusterrak bete egiten ditu Bizkaiko Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide orokorra erregulatzeko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 12. artikuluan xedatutako betekizun guztiak, dirulaguntzaren onuradun izateko bete behar direnak.

Beste alde batetik, Foru Arauko 13. artikulua araberak, ezarritako betebeharrak guztiak bete beharko ditu.

Erakundeak ez duela inoiz jaso zehapenik sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta zigor edo administrazioaren arloan egiaztatatu du.

Hitzarmen hau sinatzeak esan nahi du onuradunak baimena ematen duela Bizkaiko Foru Aldundiak zuzenean egiazta dezan onuradunak betetzen dituela xedapen indardunek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Hirugarrena.- Hitzarmenaren indarraldia

Hitzarmen hau sinatu ondoren sartuko da indarrean, eta 2027ko abenduaren 31ra arteko indarraldia izango du.

Laugarrena.- Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromiso ekonomikoak.

Dirulaguntzaren zenbatekoa hirurehun eta berrogeita bost mila eurokoa (355.000 €) da lau urtetan banatuta:

- 2024: 55.000 €
- 2025: 100.000 €
- 2026: 100.000 €
- 2027: 100.000 €

Zenbatekoa kredituan baimendutako aurrekontu-kreditu osoa da. 2019/0120 Bide Berrikuntza aurrekontu proiektuko 10.03/453.115/451.00 aurrekontu partidaren kargura izendatuta dago.

Hitzarmen hau sinatutakoan eta urte bakoitzeko lehenengo hiruhilekoan ordainduko da dirulaguntza, eta erakundeari ez zaio bermerik eskatuko, ez delako antzematen hitzarmen honen bitartez bere gain hartu dituen betebeharrak ez betetzeko arriskurik.

Hitzarmen honen ondoriozko gastutzat eta, beraz, alderdiek egindako finantza- ekarpenekin finantzatzeko moduko gastutzat joko dira 2024, 2025, 2026 eta 2027 urteetan zehar egindakoak. Behar bezala justifikatuta egon behar dira, indarrean dagoen araudiarekin bat, eta hitzarmena justifikatzeko datan ordainduta. Beharrezko

para Bizkaia y justifica la no utilización de una convocatoria pública para conseguir los objetivos que se plantean.

Segunda.- Entidad Beneficiaria.

El clúster MLC cumple con los requisitos establecidos en el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral para tener la consideración de persona beneficiaria de la subvención.

Por otro lado, la entidad está sujeta al cumplimiento de la totalidad de las obligaciones establecidas en el artículo 13 de la citada Norma Foral.

La entidad ha acreditado no haber sido sancionada, administrativa ni penalmente, por incurrir en discriminación por razón de sexo.

La firma del presente convenio conlleva la autorización de la entidad beneficiaria para la comprobación de manera directa por parte de la Diputación Foral de Bizkaia del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.

Tercera.- Plazo de vigencia del convenio

Este convenio entrará en vigor tras su firma y su vigencia se extenderá hasta el 31 de diciembre de 2027.

Cuarta.- Obligaciones y compromisos económicos de las partes.

La cuantía de la subvención asciende a trescientos cincuenta y cinco mil euros (355.000 €), distribuidos en cuatro anualidades:

- 2024: 55.000 €
- 2025: 100.000 €
- 2026: 100.000 €
- 2027: 100.000 €

Dicha cuantía es el importe total del crédito presupuestario autorizado a dicho crédito, designado con cargo a la partida presupuestaria 10.03/453.115/451.00 proyecto presupuestario 2019/0120 Innovación Viaria.

El pago de la subvención se realizará a la firma del presente convenio y en el primer trimestre de cada año, y no será exigible la prestación de garantía por parte de la entidad por no apreciarse riesgo de que incumpla las obligaciones asumidas en virtud de este convenio.

Se considerarán gastos imputables, derivados de este convenio y susceptibles de ser financiados por las aportaciones financieras de las partes, aquellos incurridos durante todo el año 2024, 2025, 2026 y 2027. Deberán estar correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor y pagados a la fecha de justificación del



gastuak izango dira, eta batere zalantzarik gabe bat etorri behar dira lagundutako jardueraren izaerarekin eta hitzarmenaren garapen normalarekin eta bere justifikazioarekin

BEZagatik dirulaguntza emango da erakunde onuradunak egiaztatzen badu ezin dezakeela berreskuratu edo konpentsaziorik jaso.

Dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada, sektore publikoko kontratuen arloan kontratu txikietarako indarrean dagoen araudian ezarritako zenbatekoak baino, onuradunak hiru enpresa hornitzaileen eskaintzak eskatu beharko ditu gutxienez, zerbitzua egiteko edo ondasuna emateko konpromisoa hartu baino lehen. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun eta zerbitzuok hornitu edo egiten dituen hainbeste entitatetik ez badago, edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada. Alderdi hori behar bezala azaldu behar da justifikazioan.

Aurkezten diren eskaintzak justifikazioan jaso behar dira haien arteko hautapenerako irizpideak eraginkortasuna eta ekonomia izango dira. Eskaintza ekonomiko hobereña hautatzen ez bada, arrazoiak azaldu behar dira txosten batean.

Bosgarrena.- Alderdiek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzearen ondorioak.

Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 33. artikuluan ezarritakoak dira dirulaguntza itzultzeko zio diren ez betetzeak. Halakoetan, jasotako eta frogatu gabeko diru-kopuruak itzuli beharko ditu onuradunak, berandutze-interesak barne.

Era berean, hitzarmen honen ondoriozko betebeharrak ez betetzeak, baita emandako ekarpenak beste xede batzuetarako erabiltzeak ere, jasotako kopuruak, baita bidezko korrituak ere, itzultzeko betebeharrak ekarriko lukete; horrelakoetan egin beharreko legezko egintzak egin eta ezarri beharreko zehapenak ezarriko dira, baita sortutako gaitz eta kalteak ordaintzeko betebeharrak ere. Zenbateko horiek, legez ondorioetarako, sarrera publikotzat joko dira.

Behar baino gehiagoko finantzazioa denean beste laguntza batzuk ere ematen direla-eta (maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 18.3. artikuluan ezarrita), bidezkoa izango da behar baino gehiago ordaindutakoa itzultzea, eta berandutze-interesa aplikatuko da.

Baldintzen zati bat betetzeak edo epearen barruan jardueraren zati bat bakarrik egiteak dirulaguntzaren ordainketa partziala dakar, betiere erakunde onuradunak konpromisoak argi eta garbi betetzeko jarduketa egiaztatzen bada, edo, hala denean, zati bat itzuli beharko da, guztizko ekintzatik buruturikoaren proportzioa aplikatuz.

convenio. Serán gastos necesarios y responder de manera indubitada a la naturaleza, al normal desarrollo y a la justificación del convenio.

El IVA será subvencionable cuando la entidad beneficiaria lo abone efectivamente y acredite no ser susceptible de recuperación o compensación.

Cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas para el contrato menor en la normativa vigente en materia de contratos del sector público, la beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes entidades proveedoras, con carácter previo a la contratación del servicio o la entrega del bien, salvo que por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención, circunstancia que deberá quedar explicada debidamente en la justificación.

La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

Quinta.- Consecuencias por incumplimientos de las obligaciones y compromisos asumidos por las partes.

Los incumplimientos que constituyen causa de reintegro de la subvención son los recogidos en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo. En dichos casos, la entidad beneficiaria deberá reintegrar las cantidades recibidas y no justificadas, junto con el interés de demora correspondiente.

Así mismo, el incumplimiento de las obligaciones derivadas del presente convenio, así como la utilización para otros fines de las dotaciones concedidas, implicará la obligación de reintegrar las cantidades percibidas, con los intereses procedentes, sin perjuicio de las acciones legales y sanciones que correspondan, así como la indemnización de los daños y perjuicios producidos. Las referidas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a efectos legales.

En el supuesto de sobrefinanciación, por concurrencia con otras ayudas, contemplado en el artículo 18.3 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, procederá el reintegro por la cantidad excedida, a la que se aplicará el correspondiente interés de demora.

El cumplimiento parcial de las condiciones o la realización en plazo de sólo una parte de la actividad, siempre que se acredite una actuación de la entidad beneficiaria inequívocamente tendente a la satisfacción de los compromisos, dará lugar al pago parcial de la subvención o, en su caso, al reintegro también parcial aplicando la



Seigarrena.- Jarraipen zaintza eta kontrolerako mekanismoak, hitzarmenaren betearazpenari eta hartutako konpromisoei aplikatzekoak

MLC klusterrak Bizkaiko Foru Aldundiko organoen egiaztapen-jarduerak onartu behar ditu, eta erakunde laguntzaileekin eta dirulaguntzaren xedeari edo haren justifikazioari lotutako hirugarren pertsonekin batera, Foru Administrazioako organoek eta, Erkidegoko araudiaren arabera, finantza-kontrolako eginkizunak esleituta dituzten organoek eskatzen duten laguntza eskaini beharko du eta behar beste dokumentu eman beharko ditu, Diru- laguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauaren 41. artikularekin bat etorritz.

Hitzarmen hau sinatzearen ondorioz jasotako dirulaguntzaren aplikazioari buruzko urteko justifikazioa Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Sailean aurkeztu beharko da 2025ko, 2026ko, 2027ko eta 2028ko ekainaren 30an baino lehen.

34/2010 Foru Dekretuko 57.artikuluaren arabera justifikazio-kontua; horrekin batera gastuen frogagiriak aurkeztuta baten bitartez frogatuko da ezarritako baldintzak bete direla eta aurreikusitako helburuak lortu direla, eta dokumentu hauek jaso beharko ditu:

- Hartutako konpromisoak betetzen direla justifikatzen duen jarduketa-memoria, egin diren jarduerak eta lortu diren emaitzak adierazita.

Aurreikusitako helburuak noraino lortu diren neurtzeko, memoriak, hala dagokionean, sexuaren arabera banatuta eduki beharko du informazioa, salbu eta posible ez den kasuetan: halako egoerak behar bezala justifikatuta egon beharko du.

Horrez gainera, erakunde onuradunak modu justifikatuan adierazi behar izango du ea, bere ustez, diruz lagundutako proiektuaren helburua ondo bete den.

- Hitzarmena betearaztearen ondoriozko gastuak justifikatzen dituen memoria ekonomikoa, honako hauek dituen:
 - Hitzarmenaren xede den proiektuari egotzitako sarreraren eta gastuen egoera-orria. Laburpen hori Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren webgunean horretarako eskuragarri dagoen ereduaren arabera egin beharko da.
 - Gastuen egoera-orria osatzen duen partida bakoitzeko zerrenda sailkatu bat egon behar da, jarduketaren gastuak jasotzen dituen. Zerrendan,

proporción en que se encuentre la actividad realizada respecto de la total.

Sexta.- Mecanismos de seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del convenio y de los compromisos adquiridos.

El clúster MLC, además de someterse a las actuaciones de comprobación por parte de los órganos de la Diputación Foral de Bizkaia, junto con las entidades colaboradoras y terceras personas relacionadas con el objeto de la subvención o su justificación, estará obligada a prestar colaboración y facilitar cuanta documentación sea requerida por los órganos de la Administración Foral, así como a los órganos que, de acuerdo con la normativa comunitaria, tengan atribuidas funciones de control financiero de conformidad con el artículo 41 de la Norma Foral 5/2005, de Subvenciones.

La justificación anual de la aplicación de la subvención recibida como consecuencia de la firma del presente convenio deberá presentarse en el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial antes del 30 de junio de 2025, 2026, 2027 y 2028.

La justificación del cumplimiento de las condiciones impuestas y de la consecución de los objetivos previstos deberá realizarse mediante el sistema de cuenta justificativa con aportación de justificantes de gasto previsto en el artículo 57 del Decreto Foral 34/2010 y deberá contener la siguiente documentación:

- Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de los compromisos acordados, con indicación de las actuaciones realizadas y de los resultados obtenidos.

En orden a comprobar la consecución de los objetivos previstos, la memoria deberá, en su caso, proporcionar la información desagregada por sexo, salvo en aquellos supuestos en los que no resulte posible, circunstancia que deberá quedar debidamente justificada.

Así mismo, la entidad beneficiaria deberá declarar de manera justificada si, a su juicio, se ha cumplido a su satisfacción el objeto del proyecto subvencionado.

- Una memoria económica justificativa de los gastos derivados de la ejecución del convenio, que contendrá:
 - Un estado de ingresos y gastos imputados al proyecto objeto del convenio. Este resumen deberá realizarse según el modelo establecido al efecto que se encuentra accesible en la página web del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial.
 - Para cada una de las partidas que componen el estado de gastos señalado en el apartado anterior, una relación clasificada de los gastos de la actividad,



hartzekoduna eta agiria identifikatu behar dira, bai eta hari dagokion zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, zenbateko hori zein egunetan ordaindu zen ere bai.

- Fakturen edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio bera duten edo eraginkortasun administratiboa duten agirien fotokopiak eta, hala badagokio, ordainketa egiaztatzeak agiriak.
- Sarreraren egoera-orka osatzen duten partida bakoitzeko, jardueraren finantzatu duten dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideen zerrenda xehakiatua, bakoitzaren zenbatekoa eta jatorria adierazita
- Dena dela, gastuen zenbatekoa handiagoa bada Sektore Publikoko Kontratuen Legeak kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak baino, gastua exekutatzen duen alderdiak, gutxienez, hiru hornitzaileen eskaintzak eskatu beharko ditu zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ez bada nahikoa erakunderik halakorik hornitu edo eskaintzen duenik.

— Langile-gastuak badira

- Jarduketan parte hartzen duten pertsonen LZNaren kopia (Langileen Zerrenda Nominala), Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandakoa
- Urteko soldata eta enpresak Gizarte Segurantzaren ordaintzen diren zenbatekoa modu individualizatuan adierazten dituen dokumentua, baita urteko ordurkopia ere, ziurtagirian adierazten den ordurkopia kostua justifikatzeko.
- Erakundearen legezko ordezkaria duen pertsonaren ziurtagiria; bertan, proiektuari dagokion pertsonal-gastu zuzenak zehaztuko dira, lanordurkopia eta ordurkopia kostua ere zehaztuz.

— Zenbatekoa hainbanaketa bidez esleitzen denean, hitzarmen honen helburu diren jarduketari dagokien gastu osoan ehunekoa zehazten duen kalkulur sistema eman beharko da.

Proiektua justifikatzeko unean ikusten bada justifikazioan jasotako gastu-kontzepturen batean onar daitezkeen guztizko zenbatekoa aurrekontuan planteatutako zenbatekoa baino txikiagoa dela, beste gastu-kontzeptu batzuetan goranzko desbideratzeen bidez konpentsatu ahal izango da, kontzeptu bakoitzerako aurreikusitako zenbatekoaren gaineko % 20ko gehieneko gehikuntzarekin, betiere agiri bidez behar bezala justifikatuta badago, gehieneko dirulaguntza ez

con identificación de la persona acreedora y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago.

- Fotocopia de las facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa, incorporados en la relación anterior, y en su caso, la documentación acreditativa del pago.
- Una relación detallada, por cada una de las partidas que componen el estado de ingresos, de las subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, en su caso, que hayan financiado la actividad con indicación de su importe y procedencia.
- Cuando el importe del gasto supere las cuantías establecidas en la Ley de Contratos del Sector Público, para el contrato menor, la parte que ejecuta el gasto deberá solicitar como mínimo tres ofertas a diferentes proveedoras, con carácter previo a la contratación del compromiso para la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por las especiales características de los gastos no exista en el mercado suficiente número de entidades que la suministren o presten.

— Justificación de gastos de personal

- Copia de RNT (relación nominal de trabajadoras y trabajadores) de las personas que intervienen en la actuación expedido por la Tesorería General de la Seguridad Social.
- Documento que, de forma individualizada, indique el salario anual e importe de la Seguridad Social a cargo de la empresa y el número de horas anuales al objeto de justificar el coste horario que se indique en la certificación.
- Certificación de la persona representante legal de la entidad en la que se detallen los gastos directos de personal imputables al proyecto, especificando el número de horas de dedicación y coste horario de cada persona involucrada en el proyecto.

— En los casos en los que se asigne un importe mediante prorrateo, se deberá aportar el sistema de cálculo que permita determinar el porcentaje de gasto total asignado a las actuaciones objeto de este convenio.

Si en el momento de la justificación del proyecto se observa que el importe total admisible en alguno de los conceptos de gasto recogidos en la justificación es inferior al importe planteado en el presupuesto, se podrá compensar mediante desviaciones al alza en otros conceptos de gasto con un incremento máximo del 20% sobre el importe previsto en cada concepto, siempre y cuando esté debidamente justificado documentalmente, con la limitación de no superar la subvención máxima. El importe



gainditzeko mugarekin. Justifikatutako zenbateko osoak, klausula honetan ezarritako irizpideen arabera baimendutako aldaketak kontuan hartuta, jasotako dirulaguntza justifikatzeko aukera eman beharko du. Bestela, ez-betetzearen ondoriozko prozedura izapidetuko da.

Gastu bakoitza justifikatzen duten egiaztagiriak eta agiriak erakunde onuradunak gorde egin beharko ditu egin ahal diren egiaztapen eta kontrol-jarduketegi begira.

Ilido horretan, espedientearen ixteko berrikuspenean hurrengoak egiaztatuko dira:

- Akordio honetan aurreikusitako jarduera guztiak burutu dira.
- Erakunde onuradunak ekintza honen gainean aurkeztu dituen justifikazio guztiak, denetara, jasotako laguntza publikoen edota pribatuen bestekoak izan behar dira, bestela kopuru hori gainditu behar dute.
- Helburura hitzarmenean ezarritako terminoetan bete da eta bi alderdien gogobetetasuna lortu da.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutakoaren arabera, dirulaguntzaren xedea gauzatzeko agindua jasotzen duten entitateek honako hauek bete behar dituzte: lege horretan ezarritako printzipio orokorrak errespetatu behar dituzte entitateek, beren lanaren barruko estatistikak genero ikuspegiaren arabera egokitu beharko dituzte, ez dute hizkera sexistarik erabiliko eta emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatu behar dute eratzen diren batzordeetan eta lan taldeetan.

Zazpigarrena.- Hitzarmena aldatzeko araubidea.

Erakunde onuradunak Foru Aldundiari diru- laguntzak emateko ebazpena aldatzeko eska diezaiokete, betiere aipatu berri dugun aldaketaren bidez aldeztu aurretik ezarritako epeak luzatu nahi badira, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu nahi bada edo jardueraren barne dauden egintzak aldatu nahi badira. Eskaera horiek baimena jasoko dute aurretik ikusi ez diren baldintzak gertatzen badira, betiere dirulaguntzaren xedea aldatzen ez bada eta hirugarren pertsonen eskubideak urratzen ez badira.

Eskaera hori diruz lagundutako jarduera egiteko bi hilabete epea amaitu baino lehen aurkeztu beharko da, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzeko beharrezko izapideak egin daitezkeen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32. artikuluan ezarritakoaren arabera.

total justificado, teniendo en cuenta las modificaciones permitidas en base a los criterios establecidos en esta cláusula, deberá permitir la justificación de la subvención percibida. En caso contrario se tramitará el correspondiente procedimiento de incumplimiento.

Los justificantes y documentos acreditativos de cada uno de los gastos se deberán conservar en poder de la entidad beneficiaria para las actuaciones de comprobación y control que se puedan realizar.

Así, en la revisión para el cierre del expediente se comprobará que:

- Se han ejecutado todas las actuaciones previstas en este acuerdo.
- La totalidad de las justificaciones aportadas por la entidad beneficiaria relativas a esta actuación son iguales o superiores al conjunto de ayudas públicas y/o privadas percibidas.
- El objeto se ha cumplido en los términos del convenio y a satisfacción de ambas partes.

Las entidades a las que se les encomiende la ejecución del objeto de la subvención, de conformidad con lo previsto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero de Igualdad entre mujeres y hombres, deberán respetar los principios generales previstos en la misma; adecuar las estadísticas que formen parte de su trabajo a una perspectiva de género; realizar un uso no sexista del lenguaje y garantizar una representación equilibrada entre mujeres y hombres en la comisión y equipos de trabajo que se constituyan.

Séptima.- Régimen de modificación del convenio.

La entidad beneficiaria podrá solicitar a la Diputación Foral de Bizkaia modificaciones de la resolución de concesión que supongan ampliación de los plazos fijados, reducción del importe concedido o alteración de las acciones que se integran en la actividad, que serán autorizadas cuando traigan su causa en circunstancias imprevistas o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no se perjudiquen derechos de terceras personas.

Dicha solicitud se deberá realizar al menos dos meses antes de que finalice el plazo para realizar la actividad subvencionada, al objeto de realizar la tramitación necesaria para modificar la resolución de concesión, según el art. 32 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.



Aldaketarako eskaerari buruzko ebazpen berariaz eman ezean, aldaketa ukatu egin dela ulertuko da.

Dirulaguntza ematen duen organoak laguntza hori emateko ebazpena aldatu ahal izango du ofizioz, funtsak aplikatu aurretik, kasu honetan: laguntza emateko kontuan izan diren baldintzak aldatu badira eta, aldaketa horren ondorioz, xede den interes publikoa lortzea eragozten edo arriskuan jartzen bada, eta onuradunari kalte ekonomikorik eragiten ez bazaio.

Era berean, Dirulaguntzei buruzko Foru Arautegiaren 71. artikulua ezarritakoari jarraiki, dirulaguntzaren onuradunak adieraziz gero justifikazioan dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan ebazpenaren aldaketa eragin ahal izan dituzten aldaketak gertatu direla, onesteko aurretiko administrazio-baimenaren tramitea egin gabe, dirulaguntza eman duen organoak aurkeztutako justifikazioa onartu ahal du, baldin eta hori onartzeak hirugarrenen eskubideei kalterik eragiten ez badie, horrek guztiak onuraduna 5/2005 Foru Arauak ezarritakoaren arabera egotz dakizkiokeen zehazpenetatik salbuetsi gabe.

Zortzigarrena.- Azpikontratatzeko baldintzak

Erakunde onuradunak, diruz lagundutako jarduera azpikontrata dezake, guztia edo zati bat. Azpikontratatzeko jarduera %100koa izan daiteke.

Hirugarren pertsona batzuekin hitzartutako jardueraren kostuak dirulaguntzaren %20 gainditzen badu eta zenbateko hori 60.000 euro baino gehiago bada, orduan, kontratua idatziz formalizatuko da eta baimena eskatu beharko zaio Berrikuntzarako eta Bideen Kudeaketarako Zuzendaritza Nagusiari, 5/2005 Foru Arauaren 27.3 artikuluari dagokionez. Beronek 15 eguneko epearen barruan ebazpena eman beharko duenarik. Beren berariazko ebazpena ematen ez badu, administrazioaren isiltasuna baiezkotzat joko da eta emandakotzat joko litzateke.

Bederatzigarrena.- Emandako dirulaguntza hedatzea

Erakunde onuradunak Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa jarri beharko du lehentasunezko tokian eta laguntza honen xedeko jarduketa guztietan, horretarako Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Sailak bidaliko dizkion jarraibideen arabera.

Hamargarrena.- Hitzarmenak azkentzea

Hitzarmen hau azkenduko da edo bere xede diren jarduketak betetzean edo suntsiarazteko arrazoiak gertatzean.

Suntsiarazteko arrazoi dira:

- Alderdi guztien ahobatezko erabakia.

En caso de no producirse resolución expresa referente a dicha solicitud de modificación, se entenderá que dicha modificación no ha sido concedida.

El órgano concedente de la subvención podrá modificar de oficio la resolución de concesión, previa audiencia de la parte interesada y antes de la aplicación de los fondos, cuando la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión impida o dificulte la consecución del interés público perseguido y no se irroguen perjuicios económicos a la entidad beneficiaria.

Así mismo, de conformidad con el artículo 71 del Reglamento Foral de Subvenciones cuando el beneficiario de la subvención ponga de manifiesto en la justificación que se han producido alteraciones de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la misma que hubieran podido dar lugar a la modificación de la resolución, habiéndose omitido el trámite de autorización administrativa previa para su aprobación, el órgano concedente de la subvención podrá aceptar la justificación presentada, siempre y cuando tal aceptación no suponga dañar derechos de terceros, y sin que ello exima a la entidad beneficiaria de las sanciones que puedan corresponder con arreglo a la Norma Foral 5/2005.

Octava.- Condiciones de subcontratación

La entidad beneficiaria podrá subcontratar, total o parcialmente, la actividad subvencionada. La actividad que la entidad beneficiaria subcontrate podrá llegar al 100%.

Cuando la actividad concertada con terceras personas exceda del 20% del importe de la subvención y dicho importe sea superior a 60.000 euros, la subcontratación se celebrará por escrito y deberá contar con la previa autorización de la Dirección General de Innovación y Gestión Viaria, de acuerdo con lo establecido en el artículo 27.3 de la Norma Foral 5/2005, quien resolverá en un plazo de 15 días. Caso de no mediar resolución expresa, la autorización se considerará concedida mediante silencio administrativo positivo.

Novena.- Difusión de la subvención concedida.

La entidad beneficiaria deberá situar en lugar preferente y en todas las acciones objeto de la presente ayuda, el logotipo de Diputación Foral de Bizkaia, acorde con las instrucciones que le remita el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial.

Décima.- Extinción del convenio

El presente convenio se extinguirá por el cumplimiento de las actuaciones que constituyen su objeto o por incurrir en causa de resolución.

Serán causas de resolución:

- El acuerdo unánime de todas las partes.



- Alderdietako batek bere gain hartutako betebeharrak edo konpromisoak ez betetzea.
- Hitzarmenaren indarraldia amaitzea hitzarmenaren luzapena erabaki gabe.
- Hitzarmenaren deuseztasuna deklaratu duen erabaki judiziala.
- Legeek aurrez ikusitako beste edozein arrazoi gertatu denean.

Alderdietako batek, hartutako konpromisoak ez betetzeak ahalmena emango die beste alderdiei, hitzarmenaren suntsiketa eskatzeko.

Hitzarmena salatu edo hitzarmenaren suntsiketa eragiten duen alderdiak, iraungita dituen ekarpenak eta urte horretako aldiaren barruan dagozkionak bete beharko ditu nahitaez.

Hamaikagarrena.- Dirulaguntza borondatez itzultzea.

MLC klusterrak bere ekimenez itzuli ahal du dirulaguntza hau, Administrazioak aurrez eskatu gabe, Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Sailari jakinarazi ondoren.

Onuradunak berak eskatuta dirulaguntza itzultzeko, Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Saileko Zerbitzu Orokorrek egindako likidazioa erabili behar da.

Hamabigarrena.- Alderdien laguntzeko betebeharra.

Jasotzen den zenbatekoa hitzarmenaren xederako baino ez da erabiliko, bertan ezarritakoak zehatz betez. Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundiko Bideen Berrikuntzarako Zerbitzuaren egiaztapen jardueren, Ogasun eta Finantza Sailari dagozkion finantza kontrol eta auditoretza jardueren eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren fiskalizazio prozeduren pean jarriko da.

Hamahirugarrena.- Datu pertsonalen babesa.

Alderdi sinatzaileen konpromisoa da datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarri dena betetzea.

Hamalagarrena.- Araubide juridikoa.

Hitzarmen honek administrazio-izaera du, Sektore Publikoaren Araubideari buruzko 40/2015 Legearen Aurretiko Tituluaren VI eta bertan xedatutakoaz gain, zuzenean edo analogiaz aplikagarriak izan daitezkeen zuzenbide substantibo arauak arautuko dute. Bereziki,

- El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por alguna de las partes.
- El transcurso del plazo de vigencia sin haberse acordado la prórroga del mismo.
- Por decisión judicial declaratoria de nulidad.
- Por cualquier causa prevista en las leyes.

El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a las otras para solicitar la resolución del convenio.

La parte que promueva la denuncia o resolución del convenio quedará obligada al cumplimiento de las aportaciones que tenga vencidas y a las que le correspondan en el periodo anual en curso.

Undécima.- Devolución de la subvención por propia iniciativa.

El clúster MLC tendrá la posibilidad de proceder a la devolución voluntaria de la presente subvención por propia iniciativa sin el previo requerimiento de la Administración, previa comunicación al Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial.

La devolución a iniciativa de la entidad beneficiaria se realizará a través de liquidación confeccionada por los Servicios Generales del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial.

Duodécima.- Obligación de colaborar de las partes.

El importe recibido se utilizará para el destino específico objeto de este convenio, con estricta sujeción a los términos establecidos y se someterá a las actuaciones de comprobación por parte del Servicio de Innovación Viaria de la Diputación Foral de Bizkaia, en su caso, y a las de control financiero y auditoría que corresponden al Departamento Foral de Hacienda y Finanzas y a los procedimientos fiscalizadores del Tribunal Vasco de Cuentas

Decimotercera.- Protección de datos de carácter personal

Las partes firmantes se comprometen a cumplir con lo dispuesto en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales.

Decimocuarta.- Régimen jurídico.

El presente convenio tiene naturaleza administrativa conforme a lo dispuesto en Capítulo VI del Título Preliminar de la Ley 40/2015 de Régimen del Sector Público y se regirá, además de por lo dispuesto en el mismo, por las normas de derecho sustantivo que directa o por



hauexek dira aplikagarriak: Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua; Dirulaguntzen 5/2005 Foru Araua garatzeko Dirulaguntzen Arautegia onetsi duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua zein aldatu baitzen Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 27ko 16/2018 Foru dekretuaren bidez, zeinen bitartez onartzen baita klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko gida eta gainerako arauzko xedapenak.

Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/20016 Foru Araua erakunde pribatu aplikatuko zaie aurrekontu-ekitaldi baten zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euro edo gehiagoko laguntzak edo diru- laguntzak jasotzen dituztenei edo urteko diru-sarreraren %40 Aldundiaren laguntzetatik edo dirulaguntzetatik jasotzen dutenei, betiere gutxienez 5.000 euro badira.

Gainera, aintzat hartuta Bizkaiko Foru Aldundiak konpromiso garbia hartu duela emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunaren alde, entitate onuradunak kontuan izan beharko du genero-ikuspegia proiektua gauzatzerakoan, eta nahitaez bete beharko ditu emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 46. artikuluan honako hauen inguruan ezarritako eginbideak: lan-baldintzen zehaztapena, emakumeen eta gizonen tratamendua eta balorazioa, eta berdintasunaren balioak nola sustatzen dituen bere jardueran. Bete beharko ditu, baita ere, plantilla jakinetako entitate onuradunentzat aurreikusitako eginbideak.

Hitzarmen honetan ezarrita ez dagoen oro arautzeko, hauexek aplikatu beharko dira: Foru Administrazioak emandako diru- laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak onetsitako dirulaguntzen foru arautegia, Sektore Publikoaren Araubidearen 40/2015 Legea, abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arautzailea, 5/2006 Aurrekontu Arau Orokorraren eta haren Araudiaren testu bategina onartzen duena eta zeharka edo analogiaz aplikatu beharreko Administrazio Zuzenbideko beste edozein arau.

Hitzarmen honen interpretazioa, ondoreak, ebazpena eta behar bezalako betetzea direla eta sor daitezkeen eztabaida guztiak Bizkaiko Foru Aldundiak ebatziko ditu administrazio bidean hark emandako ebazpenak berehala betearaztekoak izango direlarik.

Hitzarmen honen ondoriozko auziak, horien izaera juridiko administratiboa dela-eta, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarriko dira, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorritz.

analogía puedan resultar de aplicación. En particular resulta aplicable la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral; el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, modificado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 16/2018, de 27 de febrero por el que se aprueba la guía para la inclusión de cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas y demás disposiciones reglamentarias.

Asimismo, la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de transparencia de Bizkaia, será de aplicación a las entidades privadas que durante un ejercicio presupuestario perciban de la Diputación Foral de Bizkaia ayudas o subvenciones que alcancen al menos una cuantía de 100.000 euros o cuando el 40% del total de sus ingresos anuales tengan el carácter de ayuda o subvención pública foral, siempre que alcancen, como mínimo, 5.000 euros.

Adicionalmente, teniendo en cuenta el compromiso de la Diputación Foral de Bizkaia en favor de una efectiva igualdad de mujeres y hombres, la entidad beneficiaria deberá tener en cuenta la perspectiva de género en la ejecución del proyecto quedando obligada al cumplimiento de las obligaciones previstas en el artículo 46 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de mujeres y hombres, relativas a la definición de las condiciones laborales, tratamiento y valoración de mujeres y hombres y el fomento de los valores de igualdad en toda su actividad, así como las previstas para las entidades beneficiarias con determinadas plantillas.

Para todo lo no previsto en el presente convenio será de aplicación la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, el Reglamento Foral de Subvenciones aprobado por Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, la Ley 40/2015 de Régimen del Sector Público, el Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral 5/2006 General Presupuestaria y su Reglamento, así como cualquier otra norma de derecho administrativo que indirectamente o por analogía pueda resultar de aplicación.

Corresponderá a la Diputación Foral de Bizkaia resolver en vía administrativa cuantas controversias se susciten en relación con la interpretación, efectos, resolución y cumplimiento del presente convenio, cuyas resoluciones serán inmediatamente ejecutivas.

Las cuestiones litigiosas que pudieran derivarse del presente convenio, dada su naturaleza jurídico-administrativa, serán sometidas al orden jurisdiccional contencioso-administrativo, conforme lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.



Hamabosgarrena.- Arau-haustek eta zehapenak.

Dirulaguntzei buruzko Foru Arauko IV. tituluan xedaturikoa aplikatuko da.

Hamaseigarrena.- Helburu bera duten beste dirulaguntzak, diru-sarrera edo baliabide batzuekiko bateragarritasuna eta bateraezintasuna

Dirulaguntza bateragarria izango da helburu bera duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuenak izan, nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak izan, dirulaguntza edo laguntza horiei buruzko arauak ezarritakoa ezertan eragotzi gabe.

Hala ere, dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauaren 18.3. artikulua ezarritakoari jarraiki, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin da izan inola ere diru- laguntza jasotzen duen jardueraren kostua baino gehiago.

MLC KLUSTERREKO PRESIDENTEA

PRESIDENTE DEL CLÚSTER MLC

EDUARDO LASA RAMIREZ

Decimoquinta.- Infracciones y sanciones.

Se aplicará lo dispuesto en el título IV de la Norma Foral de Subvenciones.

Decimosexta.- Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad.

La subvención será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo que pudiera establecer la normativa reguladora de dichas subvenciones o ayudas.

No obstante, conforme al artículo 18.3 de la Norma Foral 5/2005, el importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

**AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE
GARAPENERAKO SAILEKO FORU-DIPUTATUA
DIPUTADO FORAL DEL DEPARTAMENTO DE
INFRAESTRUCTURAS Y DESARROLLO TERRITORIAL
CARLOS ALZAGA SAGASTASOLOA**